

GORPUTZ ADIERAZPENA ETA INKLUSIOAREN TRATAERA HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Osés Serrano, Garazi.

ZUZENDARIA: Martínez Abajo, Judit.

2022

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan, Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezia Gorputz adierazpena eta inklusioa uztartzen dituen txosten bat jasotzen da. Lan honen bidez, gorputz adierazpenak eta ikasgeletako aniztasunarekiko arreta egoki batek duen garrantzia azaldu nahi da diziplina modu eraginkorrean garatzeko. Lanaren helburu nagusia hezkuntzaren errealitatera hurbiltzen eta hura ezagutzen lagundu duten zenbait irakasleen esperientzia batzuk ezagutzea izan da. Horretarako hainbat elkarrizketa sakon egin dira eta bi gai nagusiak erlazionatu dira, gorputz adierazpena eta inklusioa, bilatzen ziren datuak lortzeko eta profesional batzuek gaur egun eskoletan bizi dutena ulertzeko. Elkarrizketa horietan jasotako informazioa kategorial-sistema baten bidez aztertu da landutako edukiak eta emaitzak kontuan hartuta. Irakasleek emandako argibideei esker ondorio batzuk atera dira eta Haur Hezkuntzako haurrentzat zein Hezkuntza Bereziko haurrentzat gorputz adierazpena diziplina mesedegarria dela eta inklusioa sustatzeko bitarteko bat dela ikusi da.

Hitz gakoak: Gorputz adierazpena, Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, aniztasuna, inklusioa.

RESUMEN

En el siguiente Trabajo de Fin de Grado se recoge un informe sobre la expresión corporal y la inclusión en Educación Infantil y Educación Especial. Mediante este trabajo se quiere exponer la importancia que tiene la expresión corporal y también una atención adecuada a la diversidad de las aulas para desarrollarla de manera efectiva. El objetivo principal del trabajo ha sido conocer algunas experiencias de profesoras que han ayudado a tener un acercamiento con la realidad educativa. Para ello se han hecho unas entrevistas en profundidad donde se han relacionado ambos temas, la expresión corporal y la inclusión para obtener los datos que se buscan y comprender lo que viven hoy en día algunas profesionales. La información recogida en dichas entrevistas se ha analizado mediante un sistema categorial teniendo en cuenta los temas tratados y los diferentes resultados. Gracias a eso se ha visto que la expresión corporal es una disciplina favorecedora en niñas y niños de Educación Infantil y de Educación Especial, además de un medio a través del cual se fomenta la inclusión.

Palabras clave: Expresión corporal, Educación Infantil, Educación Especial, diversidad, inclusión.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	4
2.1. GORPUTZ ADIERAZPENA HAUR HEZKUNTZAN	4
2.1.1. Gorputz adierazpenaren garrantzia Haur Hezkuntzan	5
2.1.2. Gorputz adierazpena Haur Hezkuntzan lantzeko baliabideak	6
2.2. INKLUSIOA ETA GORPUTZ ADIERAZPENA HAUR HEZKUNTZAN	8
2.2.1. Gorputz adierazpena inklusioa lantzeko tresna	9
3. HELBURUAK	12
4. METODOA	12
4.1. TESTUINGURUA ETA PARTAIDEAK	12
4.2. TRESNAK	14
4.3. INFORMAZIOA ANALIZATZEKO PROZEDURA	16
5. EMAITZAK	17
6. ONDORIOAK	27
7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	30
8. ERREFERENTZIAK	31
9. ERANSKINAK	36
9.1. 1. ERANSKINA: ELKARRIZKETEN GALDEREN GIDOIA	36
9.2. 2. ERANSKINA: BERRITZEGUNEKO ESKALA	37

1. SARRERA

Hurrengo orrialdeetan Gradu Amaierako Lan honetan burutu den ikerketa biltzen da. Bertan, Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian ematen den gorputz adierazpenari eta inklusioari buruzko azterlan bat egin da hainbat irakasleri egindako elkarrizketen bidez. Elkarrizketa horiei esker hainbat alderdi eta gairi buruzko datuak lortu eta analizatu dira, eta informazio horretatik ondorio batzuk eskuratu dira.

Gorputz adierazpena aniztasunaren trataerarekin eta inklusioarekin lotu nahi izan da ikasgeletan dagoen aniztasuna agerikoa delako eta gero eta haur gehiagok osatzen dutelako behar bereziak dituzten haurren taldea. Horregatik, gai horri buruz ere ikertuz, bere lekua eta merezi duen garrantzia eman nahi izan zaio, izan ere, interesgarria da gai jakin batzuk gogoan izatea eta ikasleentzat lagungarriak eta inklusiboak diren baliabideak eskaintzea. Beraz, proposamen honetan Garapen Iraunkorreko Helburu ezberdinak (GIH) lantzen dira; horien artean Kalitatzeke Hezkuntza (4.) eta desberdintasunak murriztea (10.), azken finean inklusioaren helburua Hezkuntza sistema hobetzea eta pertsona guztiei aukera anitzak eskaintzea da.

Lan honetan parte hartu duten pertsonak nabarmentzea ezinbestekoa da; izan ere, haien partaidetzari, prestakuntza handiari eta esperientziei esker, gorputz adierazpenak Haur Hezkuntzan eta baita Hezkuntza Berezian ere duen garrantziari lotutako informazioa lortu da. Arlo horiek arakatzea oso aberasgarria izan da irakasleek haien egunerokoan hezkuntza esparruan bizi duten errealitatera hurbiltzerako orduan.

Egindako elkarrizketen bidez, irakasle horiek bizi izan dituzten eta gaur egun ere bizi dituzten egoera batzuetara gerturatzea lortu da, eta jakin ahal izan da, nolabait, zer nolako esangura ematen zaion gorputz adierazpenari hain txikiak diren haurrekin. Gai hori oso lagungarria da eta aintzat hartu behar da Haur Hezkuntzako irakaslearen rola hartzerakoan.

Beraz, lan honen bitartez argi utzi nahi da, eta batez ere azpimarratu, gorputz adierazpenak ez ezik, jasotzen den prestakuntzak ere duen balioa, erabiltzen diren teknikekin, ikasgeletan dagoen aniztasunarekin, Hezkuntza Bereziarekin, ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunekin eta 0-6 urteko haurren arteko inklusioarekin batera. Lan honetan lantzen diren gaiak oso funtsezkoak dira hezkuntzan bizi denari dagokionez.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. GORPUTZ ADIERAZPENA HAUR HEZKUNTZAN

Gorputz adierazpena pertsonen duten gaitasuna da eta bakoitzak bere gorputzarekin konektatzeko eta besteekin adierazteko eta komunikatzeko aukera ematen du. Guzti hori keinuen, begiraden, jarrerren, aurpegi adierazpenen eta hizkuntza propio baten bidez egiten da (Herranz eta López, 2015; Morales, 2010). Gorputz adierazpena gorputzak jakinarazteko helburuarekin egiten duen edozein ekintza, keinua edo hitza da (Ortega, 2010).

Egunerokotasunean modu natural batean ematen da eta bakoitzak bere adierazteko modua ezagutzen eta barneratzen duenean hizkuntza bihurtzen da (Mateu, 2006). Haurren hizkuntzarik naturalena da berezkoa delako eta emozioak, ezagutzak eta errealitateak erakusten laguntzen duelako (Moreno, 2008).

Haur Hezkuntzan keinuak eta mugimenduak komunikaziorako ezinbestekoak dira, biak funtsezko elementuak dira gorputz adierazpenari dagokionez, izan ere, keinua hitzik gabeko harremanaren zati bat da eta mugimendua emozioak adierazten dituen gorputz hizkuntza (Cañete, 2009). Halaber, keinua eta mugimendua adierazteko baliabideak dira haurrentzat (Cáceres, 2010) eta hauek kontuan hartuta, haur bakoitza gai da bere nortasuna eta autonomia garatzeko, eta adierazteko moduak onartzeko (Morales, 2010). Gorputzaren mugimenduaren hizkuntzak adierazkortasuna egotea bilatzen du eta haurren sormen gaitasuna kontuan hartzen du (Vizcarra, 2007).

Gorputz adierazpenak haurrak modu global batean kontuan hartzen ditu, bere garapen-prozesuaz baliatzen den jarrera gisa ulertzen da eta bere interesak zein motibazioak ere aintzat hartzen ditu (Barrera, 2010). Ideiak, sentimenduak eta emozioak gorputz hizkuntzaren bidez adieraziz, sozializazioa, besteekiko erlazioak eta talde lana garatzea ahalbidetzen da (García et al., 2013). Haur bakoitzaren aukerak eta mugak ezagutzeko abantailarekin batera gaitasun motorra hobetzeko aukera ematen du, eta hori ikusgai egoten da irudikapenak, imitazioak, mugimenduak eta abar egiterakoan (Vizcarra, 2007). Umeek diziplina lantzeaz gain, haien gorputzaren mugimendua ezagutzen dute eta horrek onurak ekartzen dizkie haien garapen psikomotorrean (Morales, 2010).

Gorputz adierazpenaren helburu nagusiak haurren bizi-kalitatea, garapen- eta ikaskuntza-prozesua hobetzea eta haurren garapen sozio-afektiboan laguntzea dira,

diziplinaren eta besteekiko interakzioen bidez ikastearekin batera (Chiva et al., 2014). Gorputzaren bidez ikasten den bitartean haur bakoitza bere buruarekin ondo sentitzea bilatzen da, eta ikaskuntza horrek beste ikaskuntza zehatzago batzuetara iristen lagunduko dio haurrari (Cáceres, 2010).

Haur Hezkuntzan garatzeko garrantzitsua da giro libre eskaintzea, espazio egokitu batean non errespetua, adierazteko motibazioa eta haurrei hazten lagunduko dieten uneak bizitzeko aukerak nagusitzen diren (Barrera, 2010). Irakasleak modu aktiboan laguntzen du, haurrei adierazteko eta gorputzak deskubritzeko laguntza ematen die eta haur bakoitzak besteengandik ikastea eta taldeari ekarpena egitea ahalbidetzen du (González eta Macchiuci, 2013). Irakasleak gorputz adierazpena behaketa eta besteekin harremantzeko metodo gisa erabiltzen du eta haurrak dituen adierazteko modu guztiak ahalik eta gehien garatzea lortu behar du, haur bakoitzak dituen mugak jakinda haietatik abiatzeko (Ortega, 2010).

2.1.1. Gorputz adierazpenaren garrantzia Haur Hezkuntzan

Haurrek une eta fase desberdinak igarotzen dituzte haien garapenean zehar sentitzen dutena adierazteko, eta portaera horiei esker haurrak haien burua deskubritzera iristen dira. Gorputz adierazpena garrantzitsua da, prozesu askoren oinarria da eta horrek arlo kognitiboa, soziala eta komunikatiboa erlazionatzen ditu (Barrera, 2010). Haurrei autonomia eraikitzen, bakoitzak bere buruarengan segurtasun handiagoa garatzen eta sententzioak jakinarazten laguntzen die, ikasleek haien gorputzarekiko kontzientzia hartzeko, gorputzarekin adierazteko eta bakoitzaren gaitasunak zeintzuk diren behatzen ikasteko (Herranz eta López, 2015).

Bakoitzak bere gorputzarekin konektatzen du bizi izan dituen esperientzietatik abiatuta eta modu honetan besteekin elkarreragiteko modu bat garatzen da, adierazpenaren bidezkoa (Morales, 2010). Garrantzitsua da haur bakoitzari ikusaraztea bere gorputzari esker adierazten dela, eta gorputzari eta bere garapenari behar besteko garrantzia eman behar zaio haurrak autokontzeptua eta autoestimua irabazi ahal izateko (Ortega, 2010).

Adierazpena jokoan bidez lantzeak ikasle bakoitzaren arrakasta bermatzen du, jolasaren erabileraren ondorioz ikaslearen berezko izaera biltzen duelako jolasten ari denean, parte hartzen duenean eta bere nortasuna azaleratzen eta erakusten duenean (Montávez, 2011). Bizipenen edo esperientzien bidezko ikaskuntza sustatzen duen metodologia bultzatzean, gorputz adierazpenaren bidez lantzen diren edukiek garapen integralean eta ahalik eta etekin handiena ateratzen laguntzen dute (García et al., 2013).

Haur bakoitzak bizitzen dituen esperientzien bidez adierazteko dituzten aukerak aztertzen eta besteek zer egiten duten ikusten dute, eta gero eta baliabide gehiago dituzte bakoitzak bere hizkuntza sortzeko (Barrera, 2010). Gorputzarekin esperimentatzeak gogoeta egitea eta modu desberdinetan lan egitea ahalbidetzen du eta horrela balore eta jarrera egokietan hazten ikasten dute (De Jesús, 2009).

Klaseetan lantzeak onurak ditu, haur bakoitzak bere nortasuna ezagutzen eta onartzen laguntzen du norberak gorputzarekin egiten dituen ekintzak kontrolatzeko eta haien identitatea eraikitzeko, autonomia garatzearekin batera (Cáceres, 2010). Haur bakoitzaren nortasuna aintzat hartzen da haurra mugitzen denean sentsazioak eta pertzepzioak garatzen dituelako eta horrek epe luzera beste eremu batzuetan laguntzen duelako (Barrera, 2010). Maila fisiko, kognitiboan eta psikologikoan hobekuntzak dituela egiaztatu da, izan ere, mugimenduaren bidez beste arlo batzuk lantzen dira; hala nola psicomotrizitatea, zentzumenak, koordinazioa edo memoria. Guzti horrek eragin positiboa du haurren gaitasunetan eta autoestimuan (Galiana, 2009).

2.1.2. Gorputz adierazpena Haur Hezkuntzan lantzeko baliabideak

Gorputzarekin adierazteko helburuarekin lan egiteko modu edo baliabide desberdinak erabiltzeak eragin positiboa du haur guztiengan, hezkuntza premia bereziak izan edo ez (Cortés, 2014). Gorputz adierazpenak hainbat tekniken bidez garatzeko aukera ematen du eta teknika horiek burutzeko gorputz hizkuntza eta komunikatzeko ekintzak erabiltzen dira (Mateu, 2006). Haur Hezkuntzan gorputz adierazpena lantzeko baliabideak erabilia Haur Hezkuntzako Curriculumean dauden hainbat alderdi garatzen dira (Herranz eta López, 2015). Teknika horiek haurren adierazpen-gaitasunak garatzen laguntzen dute eta metodologia desberdinen bidez lantzeko aukera ematen dute (Moreno, 2008). Ondoren horietako batzuk azaltzen dira:

Dramatizazioak askatasunez jokatzeko aukera ematen die ikasleei, mundua nola ikusten duten, zer pentsatzen duten eta inguruan zer dagoen erakusteko. Helburu nagusia haurrek sentimenduen bidez besteekin interakzioa lortzea da (Delgado, 2011). Gelan dramatizazioa erabiltzearen onurei dagokienez, haurren garapenean eta bizitzarako beharrezkoak diren trebetasun sozialetan eragin handia du, esperimentazioaren bidezko ikaskuntza ematen da, harremanak bultzatzen dira eta bakoitzaren buruarekiko konfiantza sustatzen da (Mateo, 2011). Jolas dramatikoaren bidez haurrek taldean egiten dute lan, elkarren artean errespetatzen dira eta modu horretan autokontrola ere lantzen dute (Moreno, 2008). Haurra aske sentitzen da, besteekiko emozioak eta sentimenduak adierazten ditu eta

sozializatzen du ikasten duen bitartean (Cañete, 2009). Gorputz-hizkuntzaren bidez, ikasleek haien gorputzak jolasa erabiliz ezagutzen dituzte eta emozioak, pentsamenduak, sentimenduak, sormena, irudimena eta konfiantza adierazten eta garatzen dituzte (Herranz eta López, 2015).

Haur Hezkuntzan **dantzak** garapen fisikoan, intelektualean, sozialean eta pertsonalean laguntzen du. Dantzak hura gozaten, beste kultura batzuk ezagutzen eta haurren arteko interakzio prozesuetan lagundu egiten du, eta ikasleen bizi kalitatean zein ikaskuntzan modu esanguratsu batean eragiten du (Vicente et al., 2010). Dantzaren bidez, haurrek sentimenduak eta ideiak adierazteko aukera dute, sormena eta erritmoa bultzatzen dituzte eta besteekiko harremana ere ahalbidetzen dute (Vizcarra, 2007). Dantzarekin batera Tamara Chubarovskyren errimak nabarmentzen dira. Errima horiek soinuekin konbinatutako esku mugimenduak dira eta haurren garapenean modu positiboan eragiten dute (Chubarovsky, 2018).

Txotxongiloak haurrek dituen barne sentipenak, usteak, mundua ikusteko duen modua eta bere errealitatea ezagutzeko erabiltzen dira. Batzuetan haurrek panpin horien bidez enpatia sentitzen dute haien burua ikusten dutela sumatzen dutelako (Dominguez, 2010). Teknika honen helburua deskubritzeko bitarteko gisa erabiltzea da, artea eta adierazpena oinarri hartuta, ikaslearengan sentsazioak sortzeko eta bere buruaren zein ingurunearen ezagutza areagotzeko (Hernández eta Moreno, 2010).

Itzalen antzerkiaren bidez haurren adierazpen gaitasuna lantzen da. Teknika garatzeko argi-fokuak eta gorputza edo beste material batzuk behar dira ondoren eremu opaku baten gainean itzalak egiteko (Martín eta López, 2007). Baliabide honek, gorputz-hizkuntza erabiltzearen bidez, komunikazioa ahalbidetzen du, haur bakoitzaren garapen osoan laguntzen du eta sentimenduak zein emozioak adierazteko aukera ere ematen du (Herranz eta López, 2015). Ikasgela batean erraz gauzatzen den baliabidea da, azpimarragarriena irudimenaren garapenari ematen dion laguntza da eta gorputz adierazpenaren nolakotasuna ere hobetzen du (Delgado, 2011).

Ipuin motorrak mugimenduetan, jolasetan edota dramatizazioetan laguntzen duten istorioak dira eta ikasleek esperimendatzeko, egoera desberdinak ezagutzeko, haien bitartez sortzeko eta trebetasun motorrak antzemateko erabiltzen dira (Iglesia, 2008). Ipuin motorra baliabide didaktiko egokia da eta haurrek parte hartzeko, adierazteko eta ikasteko gaitasuna garatzen dute. Modu horretan taldean integratuta sentitzen dira jolasten eta ikasten duten bitartean (Soler eta Pérez, 2010).

Mimikari dagokionez, imitazioaren bidez lantzen da eta aurpegiko keinuekin nahiz gorputzeko keinuekin egiten da (Dominguez, 2010). Teknika honen bidez, aldi berean hainbat trebetasun lantzen eta garatzen dira, eta gaitasun berriak ere eskuratzen dira haurrek haien garapen prozesuan aurrera egiteko (López et. al 2010).

Teknika hauek haurren garapen integralean eragin postiboa dute eta jolasa oinarri hartzen dute garapen hori modu dibertigarri batean ahalbidetzeko (Delgado, 2011). Gorputz adierazpenak proposatzen dituen baliabideek lotura dute taldean egindako ikaskuntzarekin eta ikasleei jarrera kooperatiboak eta enpatikoak garatzeko aukera ematen diete (Armada et al., 2013). Modu horretan hezkuntza inklusiboa lortzen da, hau da, ikasleen ezaugarrietara egokitzen den hezkuntza, eta berdinen arteko ikaskuntza indartzen da (Pujolàs, 2012).

2.2. INKLUSIOA ETA GORPUTZ ADIERAZPENA HAUR HEZKUNTZAN

Haur bakoitzaren ezaugarriak bakarrak eta bereziak dira eta horrek ikasleen artean aniztasuna egotea eragiten du. Ikasgelan egiten diren jarduerak prestatzean alderdi horiek kontuan hartu behar dira eta horietara egokitu, haien gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko eta aberasteko aukera emateko (Silva, 2007).

Ikasgeletan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak daude eta hainbat arrazoiengatik zailtasunak dituzte beharrezko ikaskuntzak lortzeko, adibidez: aniztasun fisiko, sentsozial, mental, kognitibo, emozional eta sozialarekin lotutako beharrak. Kasu horietan laguntza bereziak eta espezializatuak behar dira garapen eta ikaskuntza-prozesuan jarraitu ahal izateko (López eta Valenzuela, 2015).

Haurrak etengabe garatzen ari dira, beraz, haien beharrak ere aldatzen dira. Garrantzitsua da autonomia garatzen laguntzea eta haien burua erabili ahal izateko beharrezko laguntza ematea, izaki integral gisa garatu ahal izateko (Domínguez et al., 2011). Hori dela eta, Hezkuntza Bereziak garrantzia handia du baliabide egokiak erabiliz ikasleek eskolan erakusten dituzten hezkuntza premia bereziak ase baitaitezke (Marín, 2007). Hezkuntza Bereziako ikasleek hezkuntza-sistema arruntarekin batera aurrera egiten dute (González, 2009). Bere helburu nagusia haurren ezaugarriak zentzu oso batean onestea da, bakoitzak bere prozesuan aurrera jarraitzeko eta eskolatik beharrezko laguntza emateko (Bravo, 2009).

Hezkuntza-sistemek ikasleen premiak kontuan hartu behar dituzte lortu nahi diren helburuak proposatzerako orduan, beraz, erantzunak ere egokitu behar dituzte haur bakoitzaren gaitasunak garatzen laguntzeko (Luque, 2009). Ikastetxeek ikasgeletan dagoen aniztasunari buruz hausnartu behar dute, ikasleak ahulak eta baztertuak ez sentitzen laguntzen duten elementuei beharrezko arreta ematen eta estrategiak gauzatzen (Escudero, 2007). Haien garapen integrala lortzeko eta haur bakoitzarentzat beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko ezinbestekoa da haur bakoitzaren ezaugarriak osotasunean baloratzea (Silva, 2010).

Eskola inklusiboak ikasleak haien ezaugarriekin onartzen ditu, taldeko kide sentitzen ditu eta aniztasunaren trataera modu aberasgarri batean lantzen duen sistema bat sortzen du (Luque, 2009). Eskola inklusiboak ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jaso ahal izateko erantzunkizuna hartzen du eta ikasle guztiek trebetasunak modu esanguratsu batean lortzea eta garatzea du helburu (Eusko Jaurlaritz, 2019). Beste helburuetako bat ikasle guztien aukera-berdintasunean eta parte-hartzean oinarritutako hezkuntza eskaintzea da, izan ere, eskola ikasleen beharretara egokitzea ezinbestekoa da (Marín, 2007).

Ikasle bakoitzaren baldintzak aintzat hartu behar dira erantzun egokiak eta egokituak eman ahal izateko, horretarako behar besteko garrantzia eman behar zaio hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen eta eskura dauden baliabideen arteko elkarreraginari (Valenciano, 2009). Arreta handiz ikusi behar dira hezkuntzan eta bertako kideengan aldaketak eta hobekuntzak sustatzeko moduak eta hori lortzeko baldintzak, lorpen esanguratsuak lortu ahal izateko eta ekitatean bizi ahal izateko (López-Vélez, 2018).

Hezkuntza inklusiboak ikaskuntzan agertzen diren oztopoak gainditzea dakar, ikasle bakoitzaren desberdintasun pertsonalak hezkuntza-eremuan desberdintasun ez bihurtzeko (Marín, 2007). Beraz, hezkuntza inklusiboa hezkuntza sistema ideala da, eta hura osotasunean lortzeko gaur egun hezkuntza prozesuetan antzematen diren bazterkeria- eta desberdintasun-arazoei aurre egin behar zaie (Dueñas, 2010).

2.2.1. Gorputz adierazpena inklusioa lantzeko tresna

Haur bakoitzaren izateko moduarekin batera, bere gorputzaren aukerak eta baita zailtasunak ere kontuan hartzen dira, eta muga bakoitza ikasteko, esperimintatzeko, adierazteko eta trebetasunak garatzeko aukera bihurtzen da (González eta Macciuci, 2013). Gorputz adierazpena tresna ona da bazterketa-arriskuan dauden ikasleak gizarteratzeko, izan ere, modu positiboan laguntzen du eta era kooperatibo batean garatzeko aukera

ematen du. Hori bulkada bat da haurren artean marjinaziorik ez egoteko eta haien artean babesa eta laguntza sustatzeko (Armada et al., 2013).

Haurrek dituzten zailtasunak eta mugak ez dira prozesuan aurrera egiteko hesi bat, jarraitzeko arrazoi bat baizik, eta horrek haur bakoitzak bizi duen esperientzian oinarritutako lanketa sortzeko aukera ematen du (González eta Macciuci, 2013). Gorputz adierazpena modu egoki batean garatzen denean eta metodologia ikasleen ezaugarri eta gaitasunetara egokitzen denean, onuragarria da zenbait alderdietan (De las Peñas eta Gil, 2019).

Diziplina honek eskaintzen dituen edukien eskurapena beste ikaskuntza asko lortzeko euskarria da estimulu eta esperientzia asko sortzen direlako. Jolasaren bitartez adin txikietatik beste alderdi batzuk garatzen dira eta hainbat eremutan hazkundera sustatzen da egoera desberdinen bidez (Chiva et al., 2014). Haurrek haien buruarengan duten konfiantza mugimenduan oinarrituta lortzen dute eta bakoitzaren gorputz-eskemaz eta inguratzen dituen munduaz jabetzen laguntzen die. Sentsazio berriak esperimendatzearen eta ezagutzearen bidez konfiantza eta nortasuna garatzen dituzte, eta prozesuak adierazpen-mugimenduak egitea ahalbidetzen du (De las Peñas eta Gil, 2019).

Oso tresna baliagarria da, gelako haurren arteko harremanak eta komunikazioa hobetzeko erabiltzen da eta errespetuan, onarpenean eta balioestean oinarritzen da (Armada et al., 2013). Gorputz adierazpena arlo desberdinetan lantzen denean ikasleek egoera desberdinetara egokitzeak erraztasunak izaten dituzte. Ikasleek aniztasuna onartzen dute, funtzio eta gaitasun desberdinak bereizten dituzte eta inklusioaren bidez sustatzen eta eskuratzen dituzten rolak jasanberak eta enpatikoak izaten dira (De las Peñas eta Gil, 2019).

Aldaketa positiboak eragiten ditu haurren arlo fisikoan zein psikologikoan, koordinazioan, autonomian, gozamenen eta irudian. Hobekuntzak sorrarazten ditu umorean, afektibitatean eta besteekiko harremanetan ere, oro har haien bizi kalitatea hobetzen da (Barnet et al., 2015). Gorputz adierazpena lantzean muskulu-tonua, lateralitatea edota oreka garatzen dira eta ikasleari gorputza hobeto ezagutzen eta ondorioz eguneroko bizitzako ekintzak hobetzen laguntzen dio (Domínguez et al., 2011).

Nabarmentzekoa da haur hauei haien familiekin konektatzen laguntzen dien teknika bat dela; izan ere, zenbait egoeretan haurrak isolatu egiten dira sentitzen dutena erakusteko gai ez direlako edo hitzen bidez komunikatzeko gai ez direlako. Diziplina honek haurren eta familien arteko lotura sortzen laguntzen du, transmititu nahi den mezua beste modu batean helarazten eta haurrak hobeto ezagutzen laguntzen du (Galiana, 2009).

Pertsona guztiek dute bizi-kalitate egokia izateko eskubidea eta horretarako garrantzitsua da emozioen eta gorputzaren arteko oreka garatzea; Hezkuntza Bereziko haurren kasuan, egokitze-trebetasunak sustatu eta landu behar dira (Dominguez et al., 2011). Hizkuntza hori hain pertsonala da, mugimenduarekin lotutako beste arte batzuetatik ezaugarritzen eta bereizten duela gorputz adierazpena; izan ere, horri esker eremu guztietan lan egiteko aukera dago (Carnero eta Amézaga, 2019). Helburua haur bakoitzak bizi duen egoera bakoitzetik modu esanguratsuan ikastea da, mugimenduak eskaintzen dituen tresnez baliatuta. Modu horretan, gorputzarekin teknika desberdinak erabiliko dira gorputzaren hizkuntzaren bidez iragartzeko eta sortzeko (González eta Macciuci, 2013).

Haurrekin dramatizazioaren bidez gorputz adierazpena egiteak lagundu egiten du; izan ere, garapenaren etapa batzuk berriz ere bizitzeko aukera ematen die eta hizkuntza beste modu batera garatzen laguntzen die (Martín, 2018). Askotan haur batzuek zailtasunak dituzte hitzen bidez komunikatzeko eta kasu horietan gorputz adierazpena tresna egokia da sentitzen dena adierazteko, besteekin sozializatzeko, transmititzeko eta harremanak izateko (Galiana, 2009). Gorputza beste adierazpide bat bezala erabiltzea eraginkorra da eta gorputz adierazpenaren erabilera ezinbesteko faktorea da horrelako kasuak antzematen direnean (Martín, 2018).

Beste haur batzuek etengabe mugitzen egoteko beharra dute eta gorputz adierazpena erabiltzea eskatzen duten jarduerak egitea haien lagungarria izaten da; arreta denbora luzeagoan mantentzen laguntzen die eta modu azkarrago batean informazioa barneratzeko aukera eskaintzen die (Lorenzo-Lasa et al., 2007).

Gorputz adierazpenak behar bereziak dituzten haurren bizi-kalitatean eragiten du, onurak lortzen ditu eta gorputzaren kontzientzia onartu eta garatzen ditu. Gorputzak adierazteko dituen aukerak ezagutzen ditu, norberaren gaitasunen garapen integrala sustatzen du, mugimenduaren bidez sormena eta erritmoa bultzatzen ditu eta talde baten barruan lankidetzan indartzen du (Domínguez et al., 2011). Mugimenduaren bidez haurrak plazera eta gozamena bilatzen saiatzen dira, hizkuntza gero eta pertsonalagoa sortzen da haur bakoitza bere bizipen pertsonalean oinarrituta, esan dezaketenaren beldurra alde batera uzten da eta sortzen dena modu kontzientean eta adierazkorrean gozatzen da; modu horretan autoestimua eta nortasuna haien bizitzaren kalitatearekin batera indartzen dira (González eta Macciuci, 2013).

3. HELBURUAK

- Irakasle batzuen errealitatea ezagutzea, elkarrizketen bidez gorputz adierazpenak Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian duen garrantzia jakiteko.
- Geletako aniztasunaren egoera ezagutzea, irakasleen testigantzak kontuan hartuta, gorputz adierazpenak inklusioan duen eragina ezagutzeko.
- Geletan gorputz adierazpenaren erabilpena nolakoa den jakitea, irakasleek diziplina hori lantzeko duten modua ezagututa, eraginkorrak diren teknikak arakatzeko.
- Irakasleek dituzten iritziak ezagutzea, elkarrizketen erantzunak aztertuta, gorputz adierazpena onuragarria den jakiteko.

4. METODOA

4.1. TESTUINGURUA ETA PARTAIDEAK

Ikerketa hau egiteko lau elkarrizketa egin dira Gasteizko eskola desberdinetan lan egiten duten lau irakasleekin. Pertsona horiek aukeratzeko orduan irizpide bat jarraitu da: Haur Hezkuntzan gutxienez bost urteko esperientzia izatea. Baina ehundaka irakasle dago ezaugarri horiekin, horregatik, pertsona horiek aukeratzeko arrazoiak hurrengoak izan dira; haietako bi iazko Practicuma burutu zen ikastetxean tutore gisa jarduten duten profesionalak dira, biak lankideak izanik; beste bat Hezkuntza Berezian oso inplikaturik dagoen irakasle bat da eta azkena Hezkuntza Berezian espezializatutako irakaslea da. Lauek duten prestakuntza handia da, izan ere, haien formakuntza eta ikasketak oso zabalak dira. Hainbat errealiteri aurre egiteko aukera izan dute eta, horiek aintzat hartuz, hezkuntzaren erronkak ezagutu dituzte. Hori dela eta, elkarrizketatu bakoitzaren esperientzia profesionala oso aberasgarria izan da lan hau osatzeko.

Elkarrizketatutako pertsona guztiak emakumeak dira eta 1. Taulan ikusi daitezke bakoitzaren ikasketa eta prestakuntza ofizialak, irakasle bakoitzak hezkuntzan lan egindako urteko esperientziarekin batera. Irakasleek zazpi eta hogeita bi urte arteko esperientzia dute irakaskuntzan eta denbora horretan hezkuntza publikoan zein pribatuan lan egin dute. Guztiek ikasi dute gutxienez Gradu bat, hala ere, batzuek bi edo hiru titulazio akademiko dituzte eta gehienak hezkuntza eremuarekin lotutakoak izan dira. Denek partekatzen dute, besteak beste, Haur Hezkuntzako gradua ikasi izana, Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloa ikasi duen batek izan ezik. Graduari dagokionez, eskaintzen diren hainbat aipamen egin dituzte eta Graduondoko ikasketak kontuan hartuta haietako hiruk master bat egin dute, hainbat ikastaro eta prestakuntza ezberdinekin batera.

Parte hartzen duten irakasle guztiek prestakuntza esanguratsuak dituzte, eta ikasten zein formatzen jarraitzeko aukera izan dute lan egin duten bitartean, bai ikastetxeetatik kanpo eta baita ikastetxeetan bertan ere. Elkarrizketatuek hasieratik irakaskuntzan egin izan dute lan batek izan ezik, irakasle horrek hamar urte eman ditu gizarte zerbitzuetan psikologo eta gizarte hezitzaile gisa lan egiten. Irakasleek dituzten ikasketak direla eta, batzuek Haur Hezkuntzan lan egiteaz gain, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian ere egin dute lan.

Lauren lan-bizitzak tutore bezala garatu dira, nahiz eta eskoletan beste kargu batzuk bete dituzten. Horietako bat Pedagogia Terapeutiko gisa lan egiten duen espezialista da eta beste bat orientatzailea izan da. Ikastetxe baten barruan lanpostu desberdinak betetzeko aukerak hezkuntza ikuspegi desberdinetatik ezagutzeko abantaila eman die eta funtzio horiei esker haien lana hainbat modutan ulertzeko aukera ere izan dute.

Hurrengo taulan agertzen diren datuak, hau da, irakasle bakoitzari esleitu zaion izena eta emaitzen atalean hitzez-hitzeko adibideekin batera agertzen direnak, kodifikatu egin dira haien identitateak errespetatzeko; horretarako ahots bakoitzari lore baten izena eman zaio testigantza bakoitza bereizteko. Beraz, elkarrizketatu bakoitza identifikatzeko erabiliko diren izenak Melissa, Azalea, Iris eta Lila dira.

1. Taula

Irakasle Elkarrizketatuen Ezaugarriak

Irakaslea	Esperientzia irakaskuntzan	Ikasketak
Melissa	20 urte irakaskuntzan	Haur Hezkuntzako Gradua, Psikopedagogiako Gradua, Pedagogia Terapeutikoko baliokidetza, Psikomotrizitateko Masterra, Haur Hezkuntzarekin lotutako kurtsoak
Azalea	7 urte irakaskuntzan	Psikologiako Gradua, Gizarte Hezkuntzako Gradua, Haur Hezkuntzako Gradua, Psikomotrizitateko Masterra, Psikologia eta Hezkuntzarekin lotutako kurtsoak
Iris	22 urte irakaskuntzan	Pedagogiako Gradua, Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloa, Arreta Goiztiarra, Hezkuntza Berezia eta Psikomotrizitateko Masterra
Lila	7 urte irakaskuntzan	Lehen Hezkuntzako Gradua, Haur Hezkuntzako Gradua, Hezkuntza Bereziko aipamena, Entzumena eta Mintzaira aipamena (ikasleek ahozko eta idatzizko hizkuntza-gaitasunen garapenean izan ditzaketen patologiak edo zailtasunak hautematen laguntzen duen aipamena), VEC formakuntza (emozioen inguruko formazioa), Fonologia eta irakurketa formakuntza

Iturria: Egileak egina

4.2. TRESNAK

Informazioa jasotzeko erabili den tresna elkarrizketa erdiegituratua izan da, landu nahi den gaien sakontzeko eta egindako galderi buruzko probetxurik handiena ateratzeko modu egokia delako, errealitatera hurbiltzeko asmoz. Elkarrizketa erdiegituratuan elkarrizketatzaileak aukeratutako gaiari buruzko galdera multzo bat du inkestuari planteatzeko. Hala ere, galdera bakoitzetik eztabaida zabalagoa egin daiteke eta galdera

gehiago ere sor daitezke, galdera gehigarriak edota bat-batekoak erabili ahal dira elkarrizketatuaren pentsamendua eta pertzepzioak irekitzeko eta hedatzeko asmoz (Wood eta Smith, 2018).

Tresna hori ikerketa kualitatibo bat egiteko erabiltzen da, elkarrizketatu bakoitzaren errealitatea eta aztertu beharreko gaiekin duen lotura identifikatzeko (Herrera, 2017). Elkarrizketaren helburua elkarrizketatuen ikuspegia ezagutzea da; haien ideiak, sentimenduak, ekintzak eta motibazioak ulertzea elkarrizketatutako pertsona bakoitzaren iritziak, esanahiak eta ekintzak ezagutu daitezke, bakoitzaren esperientziatik abiatuta (Schettini eta Cortazzo, 2016).

Elkarrizketan agertzen diren galderak prestatzerako orduan lanaren gai nagusiak abiapuntutzat hartu dira, eta hortik abiatuta hamabost galdera prestatu dira jorratu nahi diren arloei buruz galdetzeko. Elkarrizketa mota honen abantaila da aldez aurretik erabakitzen dela zer informazio mota eskatzen den, eta hori oinarri hartuta, modu irekian egiten diren galderen gidioa egiten da, informazio aberatsagoa eta zehatzagoa jasotzeko (Folgueiras, 2016). Galderak orokorrean irekiak dira eta bide ematen dute elkarrizketatuak bere erantzunei buruzko azalpenak eta arrazoiak emateko. Galdera horiek gidioarekin lotutako galdera berriak egiteko aukera eman dute eta elkarrizketa bakoitza 45 minutu eta ordubete artean burutu da.

Egindako elkarrizketa guztiek gidoi bera jarraitu dute (Ikusi 1. eranskina) eta galderak ordena jakin batean proposatu dira koherentzia handiagoa emateko. Gidoian aurretik ezarritako galderez gain, elkarrizketak igaro ahala, landu diren gaiekin lotutako beste galdera batzuk egin dira.

Prestakuntzari eta hezkuntzan izandako esperientziei buruz galdetu zaie eta premia bereziak dituzten haurrekin edota Hezkuntza Bereziko haurrekin izandako bizipenak aztertu dira zer motatako errealitateak bizitzeko aukera izan duten ikertu nahian. Gai horiek jorratuz, ikasgeletan dagoen aniztasunari buruz hitz egin da eta aniztasun horrek hezkuntza-komunitatetik jasotzen duen arretari buruz ere hausnartu da. Beraz, gorputz adierazpena eta ikasgeletan dagoen inklusioa lotzen dituzten galderak egin dira.

Galdera horien ostean, irakasleek jasotzen duten prestakuntzari buruzko iritziak jakiteko galderak egin dira eta galdera horiek erabakitzerako orduan hezkuntza-errealitatea ezagutzen dutela hartu da kontuan. Galderen hurrengo atala gorputz adierazpenarekin lotuta egon da eta gaien sakontzeko hainbat galdera proposatu dira garrantziari, helburuei, onurei,

teknikei eta eskolek dituzten baliabideei lotuta. Elkarrizketak amaitzeko, erantzunak libreki osatzeko, argitzeko eta zehazteko aukera eman zaie eta aipatu ez duten edukia gehitzea ere eskaini zaie.

Elkarrizketen bidez, elkarrizketatutako irakasleen ikuspegitik egungo hezkuntza-egoerara hurbiltzea lortu nahi izan da gorputz adierazpena, ikasgeletako aniztasuna eta inklusioa kontuan hartuta.

4.3. INFORMAZIOA ANALIZATZEKO PROZEDURA

Lan hau aurrera eramateko Haur Hezkuntzako lau irakasleekin kontaktatu da, ikerketa honetako informazioa biltzeko. Haiekin Whatsapp bidez, posta elektronikoen bidez eta aurrez aurreko elkarrizketa baten bidez kontaktatu da. Elkarrizketa horien helburuak azaldu dira eta parte hartu nahi dutela erabaki ondoren, baimen adierazia grabatu da. Baimen hori eskatu da elkarrizketak grabatzeko ez ezik, ematen dituzten datuez ere baliatzeko eta haien hitzak lekuko gisa erabiltzeko, betiere esleitu zaizkien fikziozko izenek ematen duten konfidentziasuna mantenduz. Baimen adieraziari esker, elkarrizketetan jasotako informazioa bildu da eta eskuratutako datuak gorde dira.

Prozesu osoan zehar, Gradu Amaierako Laneko tutorearekin zenbait tutoretza egin dira lana hobetzeko, zuzentzeko eta aholkuak bilatzeko. Elkarrizketaren gidoia prestatu da eta horren ostean irakasleekin kontaktatu da elkarrizketen datak adosteko. Elkarrizketak abendutik otsailera bitartean egin dira eta hasiera batean elkarrizketa guztiak aurrez aurre egingo ziren harremana hurbilagoa eta erosoagoa izateko. COVID-19aren egoera dela eta, elkarrizketak atzeratu egin dira, horietako batzuk ezin izan dira aurrez aurre egin eta Skype edota Whatsapppeko plataformetan bideo-deien bidez egin dira.

Elkarrizketa guztiak bi gailurekin grabatu dira, alde batetik mugikorraren grabagailuarekin eta bestetik ordenagailuaren grabagailuarekin, datuak jasota geratzen direla ziurtatzeko. Behin lau elkarrizketak grabatuta ahozko grabazio horiek idatziz jaso dira, esandako guztia dokumentu batean transkribatu da lanarekin jarraitu ahal izateko, informazio guztia idatzita izateko eta horren analisisa egiteko datuak kodifikatu eta kategorizatu dira.

Kategoria-sistema aztergaia interpretatzen laguntzen duen analisirako tresna da eta edukiak kategoriatan sailkatzen ditu bildutako datuak erlazionatzen dituen bitartean (Cámara, 2009). Taula egiteko irakasleekin egindako elkarrizketetan jasotako informazioa hartu da eta datu guztiak analizatu ostean antolatu egin dira ordena eta zentzua mantentzeko. Ondoren,

ideia nagusiak atera dira eta interpretazioa egin ostean, modu hierarkiko batean dimentsioen, kategorien eta azpikategorien arabera sailkatu dira (2. Taulan) ikusi daitekeen moduan.

2. Taula

Aztertutako Edukien Sistema Kategoriala

Dimentsioak	Kategoriak	Azpikategoriak
Gorputz adierazpena	Garrantzia	
	Onurak	
	Teknikak	
	Ikastetxeen baliabideak	
Gorputz adierazpena eta inklusioa	Diagnostikoa	
	Aniztasuna	
	Inklusioaren trataera	
	Ebaluazioa	
	Irakasleen formazioa	Indarguneak
		Ahulguneak

Iturria: Egileak egina

5. EMAITZAK

Ikerketa honetan jasotako datuen arabera 2 dimentsio sortu dira; gorputz adierazpena eta gorputz adierazpena eta inklusioa, biak ildo nagusiak izanik. Lehenengo dimentsioak 4 kategoria biltzen ditu; garrantzia, onurak, teknikak eta ikastetxeen baliabideak. Bigarren dimentsioa 5 kategoriaz osatuta dago; diagnostikoa, aniztasuna, inklusioaren trataera, ebaluazioa eta irakasleen formazioa.

Ikastetxeetan Haur Hezkuntzan zein Hezkuntza Berezian gorputz adierazpenari ematen zaion **garrantziari** dagokionez, irakasleek ezinbestekotzat hartzen dute. Guztiz beharrezkoa den diziplina da eta haurren garapenaren oinarria da. “Niretzako musika, gorputz adierazpena eta saio horiek guztiz garrantzitsuak dira eta Hezkuntza Bereziko haurretzat oso” (Lila). “Gorputz adierazpena oso lotuta dago psikomotrizitatearen gaiarekin.

Eta guretzat zerotik 3ra bitartean funtsezkoena gai psikomotorra da. Bai, oso garrantzitsua da” (Iris).

Gorputz adierazpena haurren errutinan garatzea interesgarria da, eta horrek balio handia du beste mota batzuetako adierazpenekin batera kontuan hartzen eta gauzatzen denean. “Egunero landu beharko litzateke. Goizeko lehenengo ordutik, bai. Nire ustez hasi beharko litzateke eguna gorputz adierazpeneko ekintza bat egiten” (Lila).

Gure eskolan nik uste dut baietz, ematen diogula, baina umeek dituzten adierazpen guztiei, ez bakarrik gorputz adierazpena, baizik eta umearekiko dukagun jarrera. Saiatzen gara entzuketara aktiboa egiten, orduan umeek adierazterakoan ikusten badute heldu bat haiek entzuteko prest dagoela modu irekiago batean adierazten dira (Melissa).

Era berean ez zaio behar besteko garrantzia ematen, hezkuntza errealitatean hainbat faktorek zaildu egiten dutelako gorputz adierazpenarekin lotutako jarduerak aurrera eramatea. Irakasleei lotutako baliabideak, bikote pedagogikoa zein pertsonal gehiago, eta formazio falta gabezia nabarmenak dira. “Orokorrean agian ez zaio ematen behar den garrantzia pixka bat denbora kontuagatik” (Azalea).

Logistika aldetik zaila da, hau da, egon beharko litzateke bi irakasle. Agian eskola batzuetan egiten dute baina iruditzen zait orokorrean ez bada hainbeste egiten pixka bat horregatik dela, zaila delako pixka bat logistika izatea edo... Nik uste dut ere ez dela asko pentsatu hori nola egin (Azalea).

Gorputz adierazpena ez da askotan egiten. Alde batetik ez dago gaian aditua den profesionalik eta horrek gorputz adierazpenean trebatzeko aukera handirik ez egotea suposatzen du. Irakasleek diziplina lantzeko prestatuta ez daudela azpimarratu dute, horregatik ez dute gorputz adierazpena haurren garapenean integratzen. Horren ondorioz, ez da aintzat hartzen eta lantzeko interesa galtzen da. “Ez dago prestakuntza horiek emateko prestatuta dagoen jenderik; beraz, jendeak ez ditu prestakuntzak egiten ez dagoelako formatzeko aukera. Ez dago irakatsiko duenik, orduan ez zara formatzen” (Lila). “Oso zaila da gorputz adierazpeneko formakuntzak aurkitzea” (Lila). “Ez daukagu formakuntzarik eta ez da egiten” (Lila). “Nire ustez, saiatzen ez denez, ezagutzen ez denez edo benetan formatuta ez gaudenez, ez dakizu nola landu gorputz adierazpenaren kontu hori” (Iris).

Hasteko ez da egiten, ahazten zaigu eta ez gaude prestatuta. Hasteko ez gaude prestatuta. Eta orduan, zu ez bazaude prestatuta prestatzen dituzun saioak zure etxean edo zure ordu libreetan prestatu behar dituzu eta jendea ez dago prest denbora hori sartzeko. Eta orduan dena dago lotuta, zuk ez badaukazu prestakuntzarik ez duzu esfortzu hori egiten, eta azkenean galtzen da, ez da egiten (Lila).

Gorputz adierazpenaren **onurak** kontuan hartuta, guztiek defendatzen dute mugimenduak adin goiztiarrenetik eskaintzen duen laguntza eta mugimendu horrek beste arloetan lortzen dituen onurak. “Niretzat mugimendua hasieratik behar beharrezkoa da, mugimendurik gabe ez dago beste guztia. Eta onurak arlo guztietan ekarriko ditu” (Melissa). “Gorputz adierazpenak onura asko ditu eta askotan alde batera uzten dugu” (Lila).

Diziplina edozein umerentzat da onuragarria, beti lagunduko die trebetasun berriak lortzen eta aurretik eskuratu dituzten gaitasunak garatzen. Haur bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, hobetzen eta aurrera egiten laguntzen dien baliabidea da. “Azkenean onurak dira bere garapenean jarraitu ahal izatea” (Azalea).

Halaber, gorputz adierazpenaren beste onura batzuk azpimarratu dira, haien burua ezagutzeaz gain, haien inguruko mundua ere deskubritzeko aukera dute askatasunez adierazteko hautakizunaren bidez. “Guztiontzat da onuragarria, guztiok landu behar dugu, helduok ere, eta premia bereziak dituzten hurrek are gehiago beraiek normalean zailtasunak dauzkatelako hor” (Azalea). “Mugitzea, dinamikak egitea, adierazi ahal izatea, haien poza adierazi ahal izatea... Hori guztia azkenean ikusten da eta are gehiago behar bereziak dituzten umeekin. Adierazpenekin azkenean egiten dutena azaleratzea da” (Iris).

Irakasleek beraien geletan erabili dituzten **tekniken** artean jolas dramatikoak, dantzak, musika, errimak, txotxongiloak, itzalak eta mimika nagusitzen dira. Jolasa adierazpide gisa nabarmentzen da, haurrentzat hori da ohikoena, dibertigarriena eta ikasteko funtsezko modu bat. Ikasi eta adieraztearekin batera jolasten dute eta horrela azaltzen du elkarrizketatuetako batek.

Haietzat dibertitzeko unea dela uste dut eta, azkenean dibertitzeko oinarritzko eta garrantzizko gauzetako bat dela uste dut. Jolasaren bidez, baina aldi berean jolasaren bidez zenbait gauza ikasten joatea, jolasa ikasten da (Iris).

Haurrentzat egokiak diren baliabideak bilatzen dituzte, gaitasunak garatzen lagunduko dietenak. Jolasa oinarria da eta hori abiapuntutzat hartuta, gorputz adierazpenarekin lotutako hainbat teknika garatzen dituzte. Horietako bat jolas dramatikoak da eta hainbat modutan gauzatzen dute, dado baten bidez istorioen sorkuntza eginez, adibidez.

Antzerkiak egiten ditugu edo abestien bidez pertsonaia batzuk asmatzen ditugu, gero adibidez asko erabiltzen ditugu istorioen dadoak, haiek istorioak asmatzeko eta istorioetako protagonistak izateko (Lila).

Dantzak eta musika ere erabiltzen dituzte, umeak askatasunez mugitzera gonbidatzen dituzte, beraz, mugimendua modu naturalenean erabiltzen dute eta bertan haurrek ez dute baldintzaturik jarduten. “Abestiak eta dantzak ere, baina hori da onuragarria delako mugimendua” (Melissa). “Musika jartzea eta dantzatzea edo abestea, bai, hori asko egiten da. Eta Haur Hezkuntzan asko egiten da abesti bat jarri eta agian keinuekin egin” (Azalea).

Ildo horretatik, gorputz adierazpenaren garapena bultzatzen duen beste baliabide bat Tamara Chubarovskyren errimak eta poemak dira. Haurrengan eraginkorrak eta erakargarriak dira eta arlo desberdinak lantzeko modu egokia ikusten dute.

Haur Hezkuntzan asko erabiltzen ditut Tamara Chubarovskyren errimak, eta horiek dira ahozkotasuna lantzeko baina gorputz adierazpenarekin egiten dira, eskuekin egiten dira. Orduan hori bai asko erabiltzen dudala, eta asko gustatzen zaie (Azalea).

Berak egiten dituen errimak oso lotuta daude arlo emozionalarekin. Erabiltzen diren fonemek harremana daukate indarraren adierazpenarekin edo lasaigarriak dira... Orduan horrekin lanketa berezi bat egiten da. Gero gainera berak egiten dituen mugimenduak ez dira edonolakoak, ez dira ondo gelditzen direlako, adibidez eskuekin gurutzea egiten du garunean ere hemisferioen arteko lotura hori egiteko (Melissa).

Txotxongiloak, itzalak eta mimika erabiltzen dituzten beste teknika batzuk dira, eta haien erabilpena sustatzen da haurrek gozatzen dutelako eta zeharka abileziak ikasten dituztelako. “Itzal txinatarrak, horiek egiten uztea eta beraien horrekin jolastea” (Azalea). “Egiten ditut dinamikak, txotxongiloak, antzerkiak, istorioak sortzeko dadoak edo musikaren bidez ere gauza asko egiten ditut” (Lila). “Nik irudiak jartzen dizkiet laminekin, izara batean

enfokutzen ditut eta ikusten dugu zer diren. Edo izugarri gustatu zitzaidan jarduera bat ere egin genuen, dena argiz beteta, dena izaraz beteta eta haien itzala ikusten zuten” (Iris).

Dimentsio honen azken kategoria irakasleek lan egiten duten edo lan egin duten **ikastetxeen baliabideak** da. Baliabide nahikoak daudela defendatzen da eta ikastetxe publikoek pribatuek baino erosotasun handiagoa dute materialak eta baliabideak lortzerako orduan. “Materialak badaude, nik uste dut baietz, baina gero dagoenari ematen zaion erabilera beste kontu bat da” (Iris). “Pribatua izanda... publikoan errazagoa da, materialerako erraztasun gehiago lortzen direlako” (Iris). Bestalde, ikastetxeek normalean ez dituzte baliabide askorik gorputz adierazpena lantzeko eta ikastetxe bakoitzak ahal duen moduan bilatu behar ditu horiek.

Nik uste dut eskolako kontua dela, berez behar dituzu baliabide materialak baina gero horiek antolatu behar dituzu, eta irakasle bakoitzak hor ez du bakarrik bere ikuspegia. Hor izan behar da eskolako ikuspegi bat eta ondo antolatuta egon behar da, orduan guztion erantzukizuna da (Melissa).

Mugimendua modu erosoan aurrera eramatea ahalbidetzen duten espazioak, diziplina hori lantzeko material espezifikoak eta gaien adituak diren pertsonak, ikastetxeetan gorputz adierazpenaren garapena hobetuko luketen bideak dira; baina ez zaio behar besteko lehentasuna ematen eta egoera aurrera eramatea zailagoa da. “Espazioak ez daude horretarako moldatuta eta ez daude pertsona adituak” (Lila). “Beti egongo litzateke hobeto espazio zabalagoak izango bagenu... Baina adibidez gimnasio zabalago bat edo espazio zabalak dituzten gelak eta material espezifikoa askoz hobeto egongo litzateke” (Melissa).

Bigarren dimentsioa kontuan hartuta **diagnostiko** goiztiarra egitearen beharra ezinbestekoa da eskolek eta irakasleek ahalik eta lasterren laguntzak eta jarraibideak izateko. Irakasle batzuek Hezkuntza Bereziko kasuak askotan izan ez dituzten arren, errealitate hori bizi izan dute noizbait eta haur horiekin egotea egokitu zaie oraindik diagnostikorik ez zutenean. “Orokorrean, ez dakit zergatik, baina tokatu izan zait haiekin egotea agian beraien diagnostiko urtea, orduan nirekin egon diren bitartean diagnostikorik gabe egon dira eta hor bideratzen duzu ahal duzun moduan” (Melissa).

Askotan haurrak hain txikiak direnez zaila da diagnostiko zehatz bat ematea, trebetasun batzuk denborak aurrera egin ahala bereganatzen direlako. “Haur Hezkuntzan normalean ez daukate, ez bada diagnostiko oso argi bat ez zaie diagnostikoa egiten. Adibidez, orain Haur Hezkuntzan bost urteko ume batekin nago eta ikusten da garapen

aldetik zailtasunak dituela alor guztietan baina ez dauka diagnostiko bat” (Azalea). “Eskolan kasuak aurkitu ditugu baina oso adin goiztiarrak dira, oso kasu argia ez bada zuk egiten duzuna behatzea da eta gurasoei oharpena egitea, gauza batzuk berrikusteko” (Iris).

Argi utzi nahi da irakasleek ezin dutela haur bat diagnostikatu, baina behar den laguntza bilatzeko abiapuntua izan daitezke. Irakasleen papera horrelako egoeretan garrantzia handikoa da eta kasuari buruzko azterketa bat egiteko bultzada izan daiteke.

Horrelako egoeretan kontu handia izan behar da, zuk ezin duzulako diagnostikatu, baina zuk ikusi dezakezu baloratu beharreko zerbait dela, ikertu beharrekoa edo nolabait begiratu beharrekoa (Iris).

Diagnostikorik ez dutenez, batzuetan eskolek berek bilatu behar izan dituzte konponbideak, haurrei garapen-prozesuan aurrera egiteko aukera ematen dieten irtenbideak, eta baldintzetara egokitu behar izan dira eskura dituzten baliabideekin, betiere aukerarik onena bilatzen saiatuta.

Aurten baditut behar bereziak dituzten bi ume, aurreko urtean hasi ziren nirekin eta oraindik ez daukate diagnostiko jakin bat, baina oso goiz jaio ziren, garaia baino lehen, eta orduan ikusten zen beraien garapenean atzera zihoaztela. Orduan eskolan erabaki zen behaketak egin ondoren hobeto zeudela urte bat lehenagoko umeekin (Melissa).

Aniztasunari dagokionez, guztiek izan dute esperientziaren bat behar bereziak dituzten haurrekin. “Ez zait gehiegitan tokatu, baina bai izan ditut esperientzia batzuk” (Melissa). “Egoten naiz PT bezala Haur Hezkuntzako ume batekin. Edo tutorea izan naizenean gelan izan dut kasuren bat ere” (Azalea).

Autismoa eta sindrome bereziak dituzten haurrekin egon dira eta haiekin lan egitean ikusi dute haurren artean dagoen aniztasuna dela eta, haur bakoitza garapen une desberdin batean dagoela, eta horrek batzuetan zaildu egiten du beste haurrekin jarduerak taldean egitea. “Lehen esan dizudan moduan azkenean umeak ez daude momentu berdinean. Gure umeek talde lan horietan atzean geratzen dira” (Lila).

Aniztasuna gero eta agerikoagoa da ikasgeletan, beraz, gero eta errealitate gehiagoetara egokitu behar dira irakasleak. “Gustatuko litzaidake hainbeste kasu ez gertatzea baina gero eta gehiago daude” (Iris). Haur bakoitzaren kasua berezia eta bakarra

da, horregatik neurri bera ez da guztien beharretarako konponbidea, haur bakoitzari egokitu egin behar zaio eta behar duena eskaini. “Aniztasun aldetik ume bakoitza momentu batean dago, hau da, mila kasu ezberdin daude” (Lila). “Umearekiko daukagun begirada oso irekia izaten saiatzen gara, entzuten, beraiei begiratzen, bakoitzak duen aniztasunari erantzuna ematen, ez indibidualtasuna baina bai indibidualizatzen” (Melissa).

Hala ere, haurrek duten premia edo beharren arabera, modu desberdinean jotzen zaio gorputz adierazpenaren erabilerari, baina, oro har, gehiago hartzen da kontuan kasua oso zehatza denean eta premia oso espezifiko denean. “Zenbait kasuetan fisioterapeutak daude eta saio berezi batzuk izaten dituzte, baina kasu horiek oso konkretuak izaten dira. Saio horiek garapen motorra modu egoki batean garatuta ez daukaten umeekin egiten dira” (Melissa).

Gorputz adierazpenaren bidez haurren arteko **inklusioa** landu daiteke. Modu askean mugitzeko aukera ematen zaienean edo gaitasun hori modu esanguratsuan lantzeko espazio bat egokitzen denean, arau gehiegirik eta baldintzarik gabe, haurrak desberdin adierazten dira gorputzaren bidez, eta horren ondorioz, haien kideekin ere desberdin jokutzen dute. “Nik psiko gelan ikusten dudanagatik. Gainera desberdina da, psiko gelan adierazten dutena ez da gelan esaten dizuten gauza guztia, gainera beste modu batean harremantzen dira eta pertsona desberdinekin” (Melissa).

Premia bereziak dituzten hurrekin gorputz adierazpena landu beharreko edukia da. Beharizan gisa hartzen da eta haren bidez hurrek gaitasun desberdinak ikasten, lantzen eta barneratzen dituzte. “Azkenean beraiek ere behar dute, adibidez txotxongiloena oso ondo etortzen da beraiek ere txotxongiloak hartu eta ahoskotasuna lantzeko” (Azalea).

Mugitzeko askatasuna dutenez eta modu desberdin batean erlazionatzen direnez, guztiak maila berean daudela sumatzen dute, ez dago kidea gehiegi balioztatzea edo gutxiestea ahalbidetzen duen jarrerarik.

Umea gorputzarekin adierazten denean ematen du guztiak berdina goak garela, ez? Beraien artean hasten dira dantzan eta beraien artean hasten dira agian jolasak egiten, edo interakzionatzen edo beste modu batean jarduten. Denak berdina goak garela iruditzen zait (Azalea).

Era berean, gorputz adierazpena diziplina berritzailea eta erakargarria da haurren artean. Horrek haien arteko interakzioa sustatzen du eta guztiek parte hartu dezaketen talde

bat sortzen du, elkarrizketatuentzat ezinbestekoa dena inklusioa lortu nahi bada. “Garrantzitsuena taldeko kide sentitzea da, eta hori nire ustez funtsezkoa den gauzetako bat da” (Iris).

Beste alde batetik, gorputz adierazpena taldean landu beharreko abilezi bat da, beraz, Hezkuntza Bereziko haurrek aldentuta geratzeko joera dute une desberdinetan egoteagatik edota talde lanean aritzeko ohitura ezagatik.

Lehen esan dizudan moduan azkenean umeak ez daude momentu berdinean, gure umeak talde lan horietan atzean geratzen dira. Niretzat gorputz adierazpena talde lan moduan landu behar dute gela arrunt batean eta gure umeak hor pixka bat kanpoan geratzen dira. Saiatzen gara haiek integratzen, baina inklusioa berez ematea oso zaila da (Lila).

Ebaluazioari dagokionez, gorputz adierazpena psikomotrizitatearen eremuan ebaluatzen da. “Zati bat dago, bai, psikomotrizitatea baloratzen duena eta baita ere mugimendua nolakoa den” (Melissa).

Berritzeguneko eskalak ere pasatzen dira behaketa bat egin ondoren, baina berriro ere gaiak psikomotrizitatean jartzen du arreta eta ez gorputz adierazpenean (Ikusi 2. eranskina).

Berritzegunetik atera zituzten eskala batzuk eta horiek dira orain denok pasatu behar ditugunak. Ofizialean dago esparru bat dela psikomotrizitatearena baina dago gehiago garatua adibidez hanka batean jartzen da, ez? Horrela hanka baten gainean, salto bat ematen du, oinez ondo egiten du... Horrelakoak dira (Azalea).

Eskala horietan ez da adierazpena berez ebaluatzen, baina atal batean gorputz adierazpenarekin lotutako irizpideak daude. “Adierazpena esaten ari garena, nola adierazten da, bere gorputza, jario gehiago gutxiago eta hori, ez. Baina badago esparru bat tonua, ardatza... Gauza horiek behatzeko” (Azalea).

Bestalde, txostenekin ere egiten dute lan eta beraiek erabakitzen dute ebaluazioa haurrari egokitu behar zaion ala ez, bere ezaugarrien eta beharren arabera. Horregatik irakasleek ebaluazio-dokumentua aldatzeko eta egokitzeko askatasuna dute. “Hezkuntza premia bereziak oso anitzak dira, dena umearen arabera da. Hori baloratzen da eta egokitu egiten zaio” (Melissa).

Orokorrean jartzen diren helburuak haur guztientzat berdinak dira, baina hori batzuetan ezin da aurrera eramanez haur bakoitzak premia ezberdinak dituelako. Horregatik, edozein faktore dela eta, ikusten bada haur bat ez dela gai hasieratik ezarritako helburuak lortzeko, boletín berezi bat egiten da. Bertan helburuak bere gaitasunetara egokitzen eta moldatzen dira eta haur horri egokitutako ebaluazio bat proposatzen da.

Normalean helburu horiek guztientzat berdinak dira, baina egia esanda gero errealitatean ezin dira berdinak izan. Ezin diozu eskatu Hezkuntza Bereziko ume bati gauza bat benetan ezin duena lortu. Irizpide horiek jeitsi behar dira (Lila).

Irakasleen ibilbide profesionalaren inguruko informazioa bi azpikategorietan banatzen da; indarguneak eta ahuleziak. **Indarguneei** lotuta formazio teoriko-praktikoaren azterketa egin da eta biak prestakuntza egoki eta osatu baten oinarria dira. “Bataren teoriak, bestearen teoriak, oso ondo, nik uste dut ona dela oinarri gisa balio badizute, lagungarri moduan balio dizutelako” (Iris). “Teoria oso polita da eta gero eskoletan egiten dugun praktika unibertsitateko urteetan zehar niretzako oso garrantzitsua da” (Lila).

Ikaskuntzan zehar dauden praktikek etorkizuneko irakasleentzat duten esanguran zentratzen dira, horregatik ematen diote hainbeste balio prestakuntzaren alderdi praktikoari. “Gero eta praktikaldi gehiago, gero eta hobeto egiten dugu guztiok, ikasten dugulako ikusten, beste irakasleek nola jokatzeko duten ikusten” (Melissa). “Asko ikasten da errealitatea ikusten eta praktikak egiten” (Lila). “Ikusten ari naiz azkenaldian praktika gehiago egiten dituzuela geletan eta hori oso ongi ikusten dut” (Melissa).

Praktikaldian zehar esperientzia on bat izatea mesedegarria da benetako kasuetatik eta etorkizunean agian aurre egin behar zaien egoeretatik ikasteko aukera ematen dutelako. “Nire praktikak oso onak izan ziren eta orduan han kasu pila izan nituen eta bertako jendea gaztea zen, formakuntza jarraian zegoen eta orduan asko zekiten eta asko ikasi nuen” (Lila).

Irakasleen testigantzetan Haur Hezkuntzako Gradua beste ikasketa eta prestakuntza batzuekin osatzea lagundu egin diela aztertzen da. “Niri gehien lagundu didana izan da Psikologia ikastea. Psikomotritate masterrak ere lagundu dit” (Azalea). “Niretzat masterra izan da gehien aberastu nauena” (Iris). Haurren egoerak eta portaerak hobeto ulertu ahal izan dituzte eta beste modu batera egin ahal izan diete aurre egoera desberdinei. “Formakuntza horrek lagundu dit gehien bat jakiteko ume bat nola dagoen” (Azalea).

Gela bateko errealitatea ezagutzeari esker eta hezkuntza esparruan esperientziak izateari esker, irakasleek eguneroko zailtasunei aurre egiten ikasi dute. Horregatik formazioan zehar zein lanean hezkuntzan aurki daitezkeen baldintzak antzemateko eta haietatik ikasteko modurik nabarmenena esperientzia da. “Gelan ikasten da gelakoa” (Melissa). “Esperientziak ere lagundu dit” (Azalea). “Argi dagoena da zuk, esperientziaren ondorioz, onuragarriak diren eta onuragarriak ez diren jarduerak antzematen dituzula” (Iris). “Azkenean esperientziarekin asko ikasten duzu” (Lila).

Formakuntzarekin lotutako **ahuleziak** kontuan hartuta, irakasleek prestakuntza osagarria dute eta haien erantzunak bat datoz Graduaz hitz egiten denean, izan ere, soilik ikasketa hori izatea ez da formazio nahikoa hezkuntza arloan, ikasleen artean dauden zailtasunei eta benetako aniztasunari aurre egiteko. Etengabeko prestakuntza ezinbestekoa da eta are gehiago irakasleentzat. “Zuk gero bilatu behar dituzu kursoak, formakuntza handiak eta potenteak” (Lila). “Nik uste dut diplomatura soil batekin ezin duzula gaur egun dagoen aniztasunari aurre egin, edo ez duzu ikusten, edo ez diozu aurre egiten” (Melissa).

Unibertsitateko Gradua abiapuntua da, baina ez da nahikoa guztiz trebea izateko. Urte horietan zehar garatzen den eduki asko ez dago ondo antolatuta eta horrek esan nahi du irakasten den teoria ez dela zabala eta gogoetatsua, gehiegi sakontzen ez den azaleko gai-zerrenda bat baizik. “Haur Hezkuntza ikasten duzunean iruditzen zait, ez dakit, irakasgaiak geratzen direla azalean bezala” (Azalea). “Nik uste dut beharrezkoa ez den gaitegi asko sartzen dela” (Iris). “Normalean unibertsitatean ematen den formakuntza ez da nahikoa izaten” (Azalea).

Alderdi teorikoari alderdi praktikoarekin alderatuz ematen zaion arreta ere berretsi dute, eta hori ez litzateke horrela izan behar bi eremuen artean ekitatea lortu nahi bada. “Praktikoagoa izan beharko luke” (Iris). “Uste dut arlo teorikoa asko lantzen dela baina praktikoa ez dela gehiegi lantzen” (Melissa). “Unibertsitatean azken finean teoria lantzen da, baina mundu hau oso zaila da eta batzuetan oso frustragarria izan daiteke” (Lila).

Gelan ez dira bilatzen gai bera lantzeko modu desberdinak ikasleen zailtasunak edo beharrak aintzat hartuta. Ez da tresnarik eskaintzen irakasleek ikasgela batean aurre egin diezaieketen egoerei aurre egiteko eta horrek oztopoak sortzen ditu zailtasunen jatorria bilatzerakoan.

Ikasten genituen kontzeptu batzuk, baina ikasi behar duzuna da umeari nola erakutsi matematika metodologia ezberdinak erabilita eta gero umeak zailtasunak dituztenean

zergatik izan ahal dituzten zailtasunak eta nola irakatsi beste modu batean. Eta nik hori behintzat karreran ez dut ikasi (Azalea).

Nik honi egingo diot aurre, baina nondik sor daiteke hori? Zergatia galdetu behar dugu, nondik sortu den. Ez du balio, hau honengatik izan daiteke, hau honengatik balio du... Bai, baina zergatik sortzen da hau? Behetik hasi behar da eta nik uste dut hori ez dela ematen, gabezia asko daudela uste dut (Iris).

Gai batzuk garrantzia handikoak izan daitezke ikasgela batean eta nabaria da horrelako kasuen gabezia Gradua burutzen den bitartean. Gainera, Haur Hezkuntzan esperientzia duten eta etorkizuneko irakasleei benetako egoeretan lagun diezaieketen unibertsitateko irakasle nahikorik ez dagoela azpimarratzen da. "Iruditzen zaizkit gauza asko eta benetan garrantzitsuak diren gauzak ez direla irakasten karreran" (Azalea).

Ze zuk esperientzia izan baduzu hasten zara kontaktzen "Niri behin..." Hori ez? "Haur Hezkuntzan hau gertatzen zitzaidan eta hau egiten nuen" eta hori da baliagarria. Momentu asko daude irakasle moduan ez dakizula zer egin, eta erraminta horiek beste modu batean eman behar dira. Teoria eta kontzeptuak ikasita hori ahaztu egingo zaizu ez dagoelako ondo planteatuta (Azalea).

6. ONDORIOAK

Lanaren emaitzak aztertu ondoren, hainbat edukiei lotutako ondorioak atera dira. Ikerketa honetan azpimarratzekoa da irakasleek gorputz adierazpenari ematen dioten arreta. Herranzek eta Lópezek (2015) dioten moduan, gorputz adierazpenak garrantzia handia du txikitatik sentimenduak eta emozioak mugimenduaren bidez adierazteko eta komunikatzeko, eta horrela, haien gorputzez eta haiekin egin dezaketenaz jabetzen dira. Hezkuntza Berezian duen balioa kontuan hartuta, benetan ematen zaiona baino garrantzia handiagoa eman beharko litzaioke. Irakasleentzako diziplina horrek haurrei beste eduki asko garatzen laguntzen die, ikaskuntzaren oinarri gisa hartzen da eta bizitzeko gai diren esperientziei esker hazten laguntzen dieten beste esparru asko landu egiten dituzte, betiere jolasaren bidez (Chiva et al., 2014).

Gorputz adierazpenaren erabilpenari dagokionez ikasgeletan gutxi erabiltzen da; hezkuntzarekin lotutako baldintzak, hau da, adituen, prestakuntzaren eta baliabideen falta, ez direlako mesedegarriak diziplina lantzerako orduan. Irakasleek beraien kabuz bilatu behar dituzte baliabideak eta zaila da hori egitea abiapuntu bat izan gabe. Gorputz adierazpena onuragarria da Haur Hezkuntzako edozein umerentzat. Irakasleak txikiak direnetik egiten duten

mugimendua kontuan hartzeak aukera ematen du haurrak dauden une ebolutiboari dagozkion trebetasunak garatzeko, eta hurrek gorputz adierazpena landuz gaitasun berriak lortu ahal dituzte eskaintzen duen askatasunari esker. Askatasun hori funtsezkoa da, izan ere, mugimenduak eremu desberdinetan modu positiboan eragiten du eta hobekuntzak sorrarazten ditu (Galiana, 2009). Hala ere, onurarik nabarmenena hurrek beraien bizitza-eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egin ahal izatea da, gorputz adierazpenak eguneroko jarduerak garatu ahal izateko beharrezko tresnak eskaintzen dituelako. Haur guztiei zuzenean eragiten die bizi-kalitatean, garapen globala lortzen laguntzen die eta edozer adierazten eta azaleratzen laguntzen die (Dominguez et al., 2011).

Jolasaren bidez gorputz adierazpenarekin zerikusia duten eta landu beharreko jarduerak garatzen dira. Horretan oinarrituta, hurrek ondo pasatzen dute edukia zuzenean zein zeharka barneratzen duten bitartean eta erabiltzen diren teknika guztiek askatasun nahikoa eskaintzen dute hurrek prozesuan aurrera egiteko. Gorputz adierazpena jolas gisa erabiltzen duten bitartean eta garapen oso bat lortzen laguntzen dieten hainbat teknika gauzatzen dituzten bitartean, aurretik eskuratu dituzten gaitasunak garatzen jarraitzen dute eta oraindik garatzen hasteko gai izan ez diren beste trebetasun batzuk ezagutzea lortzen dute (Delgado, 2011).

Geletan dagoen aniztasuna nabarmentzen da, izan ere, irakasleek gero eta esperientzia gehiago bizi dituzte behar bereziak dituzten hurrekin. Horren ondorioz, irakasleak gero eta egoera aniztetara egokitu behar dira, eta egoera horietan haur bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartu behar dira beharrezko laguntza eskaini nahi bada. Irakasleak etengabeko formakuntzan aritu behar dira aniztasunaren trataera behar bezala emateko eta eskolak haur guztien beharrei egokitzeko. Egokitzapen hori ematea zaildu egiten da espezialista izan gabe, horregatik, irakasle gisa egin daitekeen ekintzarik garrantzitsuena hurren beharretara egokitzen diren erantzunak bilatzea da (Silva, 2010).

Gorputz adierazpenaren bidez inklusioa eman daiteke diziplinak eskaintzen duen mugimendu-askatasunari esker. Azpimarratzekoa da hurrek askatasun osoz, baldintzarik gabe eta jarrera zehatzik hartu gabe jokatzeko duten aukeraren balioa. Horri esker, hurren arteko kritikak murrizten dira eta ez dago epaitzeko eta epaitua sentitzeko aukera handirik, mota guztietako mugimenduak onartzen baitira. Horregatik, diziplina horrek eragina du hurrei baztertuak ez sentiarazten laguntzen dieten harreman-alderdi askotan, eta taldeko hurren arteko kooperazioa, babesa eta laguntza sustatzen ditu (Armada et al., 2013).

Hala ere inklusioa guztiz lortzea zaila da gorputz adierazpenak premia bereziak dituzten haurren banakako arretan eragiten duelako. Kasu batzuetan gainerako haurren garapen-prozesua euskarri hartuta momentu berean ez daudenez, baztertuta geratzeko joera dute. Beraz, inklusioari dagokionez hausnarketa sakona egin behar da, haurren garapen-prozesua zailtzen duten baldintzak aztertu behar dira eta inklusioa lortzeko lanean aritzen diren faktore guztiak hartu behar dira kontuan (Escudero, 2007).

Irakasleen formakuntzari dagokienez, elementu argi batzuek eragina dute hezkuntza-errealitateari aurre egiteko unean. Arlo teorikoan zein praktikoan prestakuntza oso bat izatea, prestakuntza osagarria izatea eta, batez ere, hezkuntzan esperientzia izatea lagungarriak dira egunerokoan irakasle batek aurre egin behar dien zailtasunei erantzun egokiak emateko. Hala ere, alderdi praktikoa da azpimarragarriena, izan ere, hezkuntzan murgilduta egotea dakarren lana, erraztasunak eta zailtasunak ezagutzeko modurik benetakoena da. Beraz, alderdirik nabarmenena da, betiere alderdi teorikoarekin osatzen bada.

Bestalde, Graduan zehar ikasten dena oso oinarritzakoa da hezkuntza-errealitatearen konplexutasunerako. Beharrezkoa da prestakuntza hori beste batzuekin osatzea ikasgelako zailtasunei aurre egin ahal izateko, unibertsitatean jasotzen den ikaskuntza ez delako nahikoa horri modu egoki eta eraginkorrean aurre egiteko. Graduan alderdi teorikoa modu zabalagoan garatzen da praktikoarekin alderatzen bada, eta horrek hezkuntzaren erronkak modu errealistagoan ezagutzea eragozten du.

Lan honen helburuen lorpenari dagokienez, ez dira guztiak modu adierazgarri batean edo guztiz bete, baina hurbilketa bat izatea lortu da. Alde batetik, modu subjektibo batean, irakasleen errealitateko zenbait alderdi, egoera eta datu ezagutu dira. Haiekin izandako elkarrizketek datuen bilketa erraztu dute, eta gorputz adierazpenak haien zati garrantzitsua dela jakin da. Irakasleen testigantzak kontuan hartuta, haien geletako aniztasunera hurbilpena egitea lortu da, eta iritzi-aniztasuna egon den arren, irakasle gehienek gorputz adierazpena inklusioa lantzeko eta bermatzeko bitarteko bat dela uste dute. Bestalde, irakasleek gorputz adierazpena lantzeko erabiltzen dituzten teknika batzuk ezagutu dira, eta haien aburuz ikusi da erabiltzen dituztenak eraginkorrak direla eta haurren garapen- zein ikaskuntza-prozesuetan laguntzen dutela. Azken helburuari dagokionez, irakasleek emandako ikuspuntuak gorputz adierazpena onuragarria dela egiaztatu dute, baina diziplinaren erabilpena areagotu beharko litzatekeela ukazina da.

Elkarrizketaren erabilerari dagokionez, onuragarria izan da zehaztutako informazioa lortzeko, baina argibide gehiago eskuratzeko eta modu sakonago batean egiteko, hainbat tresna erabiltzea aberasgarriagoa izango litzateke helburuak erabat betetzeko eta ateratako ondorioak osatzeko. Elkarrizketak baliotsuak izan dira testigantza desberdinak ezagutzeko, hausnartzeko eta etorkizunean oso lagungarriak izan daitezkeen ondorioak ateratzeko, eta hori izan da lan honetan aberasgarriena.

7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honen muga nagusia soilik lau pertsonen testigantzekin lan egitea izan da eta horregatik lortu den informazioa ez da zabalegia izan, ezin izan dira errealitate, esperientzia eta iritzi gehiago ezagutu eta horrek ikerketa hain sakona ez izatea suposatu du. Hala ere, elkarrizketatuen hurbiltasuna, profesionaltasuna eta inplikazioa, eta eman duten informazioa oso lagungarriak izan dira lan honetan.

Covid egoerak irakasleekiko harremana zaildu du eta aurretik adostutako elkarrizketak egiteko hainbat aukera bilatu behar izan dira. Oztopo horrek prozesua atzeratu badu ere, ezusteko horiei eman zaizkien konponbideak egokiak izan dira eta momentuak eskatutako egokitzapena eman da. Egoera kudeatzen jakin da, eta ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatu da eskura izan diren baliabideekin.

Lan honetako beste mugetako bat ikerketa-tresna bakarra erabiltzea izan da. Horregatik, gorputz adierazpenari buruzko ikerketa nola jarraitu edo nola hobetu pentsatu beharko balitz, alde batetik eremu gehiago hartzeko, irakasle gehiagorengana iristeko eta iritzi eta informazio gehiago izateko aukera ona izango litzateke beste tresna batzuk erabiltzea. Gainera, hainbat tresna elkarren osagarri izatea, galdetegiak, behaketak, narrazio etnografikoak, eztabaida-taldeak eta elkarrizketa sakonak lagungarria izango litzateke informazioaren egiazkotasunean eta aberastean.

Ikerketa egitean gorputz adierazpena beste ikuspegi batetik ikertzea hobekuntza bat izango litzateke, horregatik Ikaskuntza-Zerbitzua egiteko aukera hautatzea diziplina ezagutzeko modu on eta praktikoa izateaz gain, esperientzia onuragarria eta aberasgarria izango litzateke maila pertsonalean zein profesionalean.

Datuak modu hurbilagoan eta errealistagoan ikusteko beste teknika bat erabiltzea aukera ona izango litzateke Haur Hezkuntzan eta behar bereziak dituzten hurrekin proposatzeko eta gauzatzeko. Horretarako gorputz adierazpena lantzeko esku-hartze

proposamen bat diseinatzea hautabidea izango litzateke beste errealitate batzuk ezagutzeaz gain ateratzen diren ondorioak modu zuzenagoan eta objektiboagoan ikusteko.

Azkenik, oso interesgarria izango litzateke ere gorputz adierazpenarekin eta inklusioarekin lotutako gaien sakontzea, eremu horri buruzko informazio gehiago lortu ahal izateko. Horregatik, aukera ezinhobea izango litzateke Hezkuntza Bereziko hurrekin edo behar bereziak dituzten hurrekin lan egiten duten adituekin harremanetan jartzea. Elkarrizketa sakonen bidez gaia garatzeko eta errealitate gehiago ezagutzeko hautabide oso baliagarria da; izan ere, hezkuntza-esperientzia handia duten pertsonak oso lagungarriak izan daitezke ikerketa mota hori aberasteko, hainbat egoera eta errealitate ikusi, ezagutu eta landu egin ahal izan dituztelako.

8. ERREFERENTZIAK

- Armada, J. M., González, I. eta Montávez, M. (2013). La expresión corporal: un proyecto para la inclusión. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (24), 107-112. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4482483.pdf>
- Barnet, S., Pérez, S., Arbonés, M., eta Guerra, M. (2015). La danza en personas con discapacidad intelectual: Revisión sistemática e identificación de los elementos necesarios para evaluar cambios de movimiento. *AusArt*, 3 (1), 213-227. <https://addi.ehu.es/handle/10810/45373>
- Barrera, M. C. (2010). La expresión corporal en educación infantil. *Revista de Innovación y Experiencias Educativas*, (26), 1-9. https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_26/M_DELCARMEN_BARRERA_2.pdf
- Bravo, L. (2009). Psicología educacional, psicopedagogía y educación especial. *Revista de Investigación en Psicología*, 12 (2), 217-225. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3268448.pdf>
- Cáceres, M. (2010). La expresión corporal, el gesto y el movimiento en la edad infantil. *Temas para la educación. Revista Digital para profesionales de la enseñanza*, (9), 1-7. <https://www.feandalucia.ccoo.es/andalucia/docu/p5sd7343.pdf>
- Cámara, A. (2009). Construcción de un instrumento de categorías para analizar valores en documentos escritos. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 12 (2), 59-72. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3039094>
- Cañete, M. M. (2009). La expresión corporal en la etapa infantil. El gesto y el movimiento. La expresión corporal como ayuda en la construcción de la identidad y de la autonomía

- personal. Juego simbólico y juego dramático. Las actividades dramáticas. *Revista de Innovación y Experiencias Educativas*, (25), 1-11. https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_25/MARIA_DEL_MAR_CANETE_PULIDO02.pdf
- Carnero, S. eta Amézaga, A. (2019). La expresión corporal como forma de comunicación esencial. *Holos*, 5(35), 1-13. <https://digibuo.uniovi.es/dspace/bitstream/handle/10651/55077/ExpresionCorporal.pdf?sequence=1>
- Chiva, O., Gil, J. eta Hernándo, C. (2014). Innovación metodológica en la universidad: Aprendizaje servicio en la didáctica de la expresión corporal y los juegos motrices. *Tándem: Didáctica de la Educación Física*, (44), 41-48. <http://hdl.handle.net/10234/126571>
- Cortés, R. (2014). *La musicoterapia como estrategia de intervención en alumnado con necesidades educativas especiales*. (Master amaierako lana). Almeriako Unibertsitatea. <http://hdl.handle.net/10835/2658>
- De Jesús, M. (2009). Enfoques teóricos sobre la expresión corporal como medio de formación y comunicación. *Horizontes Pedagógicos*, 11 (1), 15-28. <https://revistas.iberoamericana.edu.co/index.php/rhpedagogicos/article/view/332>
- De las Peñas, E. eta Gil, J. (2019). Expresión corporal y discapacidad intelectual ligera. Una propuesta de adaptación metodológica. *EmásF: Revista Digital de Educación Física*, (56), 104-118. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6751148>
- Delgado, M. E. (2011). La dramatización, recurso didáctico en Educación Infantil. *Pedagogía magna*, (11), 382-392. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3629264.pdf>
- Domínguez, A., Pérez, J. eta Préat, L. (2011) La integración de las personas con diversidad funcional a través de la expresión corporal. In Coterón, J. eta Sánchez, G. (Ed.), *Expresión Corporal recursos para la práctica* (71- 76). AFYEC.
- Dominguez, S. (2010). El teatro en Educación Infantil. *Temas para la educación. Revista Digital para profesionales de la enseñanza*, (7), 1-17. <https://libros4medicina.com/pdfs/QuJB9uj0ozDOFO9CZE4RhEJRhu4mQr5CXNU1hzdf9zDyhNUGoOTG9NsNIH9zoSMYzi.pdf>
- Dueñas, M. L. (2010). Educación inclusiva. *REOP: Revista española de orientación y psicopedagogía*, 21(2), 358-366. <https://doi.org/10.5944/reop.vol.21.num.2.2010.11538>
- Eusko Jaurlaritz. (2019). *Plan marco para el desarrollo de una escuela inclusiva*. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_def/ad_juntos/escuela-inclusiva/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_c.pdf

- Eusko Jaurlaritza. (2021). *Haurren garapena behatzeko eskalak*. https://elearning3.hezkuntza.net/013157/pluginfile.php/7015/mod_folder/content/0/LIF_FCC%202_3_4_5%20urte_a%C2%A4os.pdf?forcedownload=1
- Escudero, J. M. (2007). Viejas y nuevas dinámicas de exclusión educativa. *Cuadernos de pedagogía*, (371), 86-89. <http://www.ugr.es/~fjirios/pce/media/4-4-c-DinamicasExclusionSocialEscudero.pdf>
- Folgueiras, P. (2016). *La entrevista*. <http://hdl.handle.net/2445/99003>
- Galiana, V. (2009). Danza e integración. *Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 4, 79-96. <https://revistas.ucm.es/index.php/ARTE/article/download/ARTE0909110079A/8778>
- García, I., Pérez, R. eta Calvo, A. (2013). Expresión corporal. Una práctica de intervención que permite encontrar un lenguaje propio mediante el estudio y la profundización del empleo del cuerpo. *Retos. Nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (23), 19-22. <https://www.redalyc.org/pdf/3457/345732289004.pdf>
- González, E. (2009). Evolución de la Educación Especial: del modelo del déficit al modelo de la escuela inclusiva. In Reyes, M. eta Conejero, S. (Koord.), *El largo camino hacia una educación inclusiva: la educación especial y social del siglo XIX a nuestros días* (429-440 or.). Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- González, S. eta Macciuci, M. I. (2013). El poder de la danza en personas con discapacidad. In *X Jornadas de Sociología*. Gizarte Zientzien Fakultatea, Buenos Airesko Unibertsitatea. <https://www.aacademica.org/000-038/210>
- Hernández, A. I. eta Moreno, C. (2010). Motricidad, arte y expresión corporal. Una experiencia a través de visitas de centros escolares a salas de exposiciones. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (18), 19-23. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5410087>
- Herranz, A. eta López, V. M. (2015). La expresión corporal en educación infantil. *La Peonza: revista de educación física para la paz*, (10), 23-44. <https://uvadoc.uva.es/handle/10324/5133>
- Herrera, J. (2017). *La investigación cualitativa*. <http://biblioteca.udgvirtual.udg.mx/jspui/handle/123456789/1167>
- Iglesia, J. (2008). Los cuentos motores como herramienta pedagógica para la Educación Infantil y Primaria. *Icono 14, Revista de comunicación y tecnologías emergentes*, 6(1), 1-15. <https://www.redalyc.org/pdf/5525/552556592006.pdf>
- López, A., Jerez, I. eta Encabo, E. (2010). *Creatividad dramática. Diferentes formas de teatro en el aula*. Hizkuntzaren didaktikaren eta literaturaren ikerketa taldea. <http://hdl.handle.net/10201/17377>

- López, I. M. eta Valenzuela G. E. (2015). Niños y adolescentes con necesidades educativas especiales. *Revista Médica Clínica Las Condes*, 26(1), 42-51. <https://doi.org/10.1016/j.rmcl.2015.02.004>
- López-Vélez, A. L. (2018). *La escuela inclusiva: El derecho a la equidad y la excelencia educativa*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. <http://hdl.handle.net/10810/26837>
- Lorenzo-Lasa, R., Ideishi, R. I. eta Ideishi, S. K. (2007). Facilitating preschool learning and movement through dance. *Early Childhood Educational Journal*, 35 (1), 25-31. <https://doi.org/10.1007/s10643-007-0172-9>
- Luque, D. J. (2009). Las necesidades educativas especiales como necesidades básicas. Una reflexión sobre la inclusión educativa. *Revista Latinoamericana de Estudios Educativos*, 39 (3 eta 4), 201-223. <https://www.redalyc.org/pdf/270/27015078009.pdf>
- Marín, M. (2007). Diversidad y educación especial. *Revista electrónica Educare*, 1(0), 91-102. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4781096.pdf>
- Martín, L. (2018). *Arteterapia y necesidades educativas especiales: Intervención en trastornos del lenguaje a través de la dramatización*. (Doktorego tesia). Granadako Unibertsitatea. <http://hdl.handle.net/10481/52826>
- Martin, M. I. eta Lopez, V. (2007). Teatro de sombras en educación infantil: un proyecto para el festival de navidad. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (12), 45-50. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2368082.pdf>
- Mateo, M. (2011). La importancia de la dramatización en las aulas de educación infantil, *Revista Arista Digital*, 4, 205-210. <https://uvadoc.uva.es/handle/10324/5133>
- Mateu, M. (2006). La corporalidad en las artes escénicas. In M. Castañer (Ed.), *La inteligencia corporal en la escuela*. (83-106 or). Graó.
- Montávez, M. (2011). *La Expresión Corporal en la realidad educativa. Descripción y análisis de su enseñanza como punto de referencia para la mejora de la calidad docente en los centros públicos de Educación Primaria de la ciudad de Córdoba*. (Doktorego tesia). Cordobako Unibertsitatea. <https://www.educacion.gob.es/teseo/imprimirFicheroTesis.do?idFichero=B%2F6FB4t8fwE%3D>
- Morales, A. (2010). La expresión corporal en Educación Infantil. *Revista de innovación y experiencias educativas*, (31), 1-8. https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_31/ANA_MORALES_GOMEZ_01.pdf
- Moreno, A. (2008). La expresión corporal. *Revista de innovación y experiencias educativas*, (13), 1-11.

- https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_13/AMALIA_MORENO_2.pdf
- Ortega, P. (2010). La expresión corporal en Educación Infantil. *Revista de Innovación y Experiencias Educativas*, (35), 1-8. https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_35/PURIFICACION_ORTEGA_2.pdf
- Pujolàs, P. (2012). Aulas inclusivas y aprendizaje cooperativo. *Educatio Siglo XXI*, 1(30), 89-112. <http://repositori.uvic.cat/handle/10854/1998>
- Schettini, P. eta Cortazzo, I. (2016). *Técnicas y estrategias en la investigación cualitativa*. <https://doi.org/10.35537/10915/53686>
- Silva, S. (2007). Atención a la diversidad en Educación Infantil. In S. Silva, *Atención a la diversidad en Educación Infantil: Cómo responder ante las Diversas Necesidades Educativas en la Educación Infantil (1-9)*. Ideaspropias.
- Silva, S. (2010). *Atención a la diversidad: Necesidades educativas: guía de actuación para docentes*. Ideaspropias.
- Soler, S. V. eta Pérez, A. I. (2010). Los cuentos motrices en la etapa de infantil. *EF-Deportes.com. Revista Digital*, (45), 1. <https://www.efdeportes.com/efd145/los-cuentos-motrices-en-la-etapa-de-infantil.htm>
- Valenciano, G. (2009). Construyendo un concepto de educación inclusiva: una experiencia compartida. *Aspectos clave de la Educación Inclusiva*, 13, 14-23. https://gredos.usal.es/bitstream/handle/10366/82468/INICO_EducacionInclusiva.pdf?sequence=1&isA#page=9
- Vicente, G., Ureña, N., Gómez, M. eta Carrillo, J. (2010). La danza en el ámbito de educativo. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (17), 42-45. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3133244>
- Vizcarra, M. T. (2007). Komunikazioa eta gorputz adierazpena haur hezkuntzan. In M.T. Vizcarra (Ed.), *Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan 0-6 urte (219-240 or)*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Wood, P. eta Smith, J. (2018). *Investigar en educación: Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación*. Narcea.

9. ERANSKINAK

9.1. 1. ERANSKINA: ELKARRIZKETEN GALDEREN GIDOIA

Lehenik eta behin, jakin dezazun elkarrizketa hau guztiz anonimoa izango dela eta gure artean geratuko dela, hau da, zure izena ez da inon agertuko ezta publikatuko ere. Zure izenaren orde ez beste izen bat erabiliko da zure datuak babesteko.

1. Baimena ematen didazu elkarrizketa honetatik jasotzen ditudan datuak nire GrALean erabiltzeko? Zeintzuk dira zure izen abizenak?
2. Zein da zure prestakuntza eta zer ikasketa mota egin dituzu orain arte?
3. Zenbat urte daramatzazu hezkuntzan lanean?
4. Hezkuntza Bereziari dagokionez, hezkuntza premia bereziak dituzten haurrekin lan egiteko aukera izan duzu? Nolakoa izan da zure esperientzia? Azaldu.
5. Jaso duzun formazioa nahikoa da klasean dagoen aniztasunari aurre egiteko? Eta batez ere, nahikoa da behar bereziak dituzten haurrei erantzun egokiak eman ahal izateko? Zergatik?
6. Behar bereziak dituzten ikasleei erantzun egoki horiek ematerako orduan, gorputz adierazpenak lagundu dezake? Nola? Zergatik?
7. Hari beretik, zure ustez, gorputz adierazpenak badu onurarik Hezkuntza Berezian? Zergatik? Zeintzuk dira onura horiek?
8. Zure ustez, irakasleek gorputz adierazpenari buruzko prestakuntza egokia jasotzen dute gerora errealitatean aurki ditzakegun egoerei aurre egin ahal izateko? Zergatik?
9. Nola hobetuko zenuke prestakuntza hori? Zer botatzen duzu faltan zure formazioan?
10. Zure ustez, beharrezkoa al da gorputz adierazpeneko prestakuntza hobea Haur Hezkuntzako etorkizuneko irakasleentzat? Zergatik?
11. Zer helburu bete nahi dira haurrekin gorputz adierazpena landuz? Eta Hezkuntza Bereziko haurrekin?
12. Zure ustez gorputz adierazpena inklusioa sustatzeko baliabidetzat hartu daiteke? Zergatik?
13. Zure ustez, adin goiztiarrenetik gorputz adierazpena garatzea onuragarria al da? Zergatik?
14. Zure ustez, gorputz adierazpena Haur Hezkuntzako ikasgeletan landu beharreko funtsezko edukia da? Zergatik?
15. Behar besteko garrantzia ematen zaio gorputz adierazpenari Haur Hezkuntzako ikasgeletan? Eta Hezkuntza Bereziko ikasgeletan? Zergatik?
16. Zure ustez, ikastetxeek baliabide nahikoak dituzte gorputz adierazpena garatzen lagunduko duten jarduerak egiteko? Zergatik? Azaldu.

17. Irakasle gisa, gorputz adierazpena lantzen duzu ikasgelan? Hala bada, nola lantzen duzu? Horrela ez bada, zergatik?
18. Gorputz adierazpeneko zer teknika erabili dituzu edo erabiltzen dituzu zure klaseetan? Zergatik horiek?
19. Zerbait hobetuko zenuke eskoletan gorputz adierazpenaren garapenari dagokionez? Zergatik? Zer hobetuko zenuke? Nola egingo zenuke?


9.2. 2. ERANSKINA: BERRITZEGUNEN ESKALA

1. Irudia

Garapen Motorra eta Fisikoa behatzen duen Eskala

HAURREN GARAPENA BEHATZEKO ESKALAK ESCALAS DE OBSERVACIÓN DEL DESARROLLO INFANTIL

IKASTETXEA/CENTRO:				BEHATZAILEA: OBSERVADOR:	
Ikaslearen izen-abizenak/Nombre y Apellidos:					
Jaiotze-data/ Fecha de nacimiento:	Sexua: Sexo:			Behaketa-data/Fecha de Observación:	

GARAPENAREN ARLOAN: MOTORRA ETA FISIKOA AREA DE DESARROLLO: MOTOR Y FÍSICO							
2 urte		3 urte		4 urte		5 urte	
1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du. <i>Oye bien: se vuelve al oír su nombre y/o se sobresalta con los ruidos</i>	1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du. <i>Oye bien: se vuelve al oír su nombre y/o se sobresalta con los ruidos</i>	1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du. <i>Oye bien: se vuelve al oír su nombre y/o se sobresalta con los ruidos</i>	1	Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du. <i>Oye bien: se vuelve al oír su nombre y/o se sobresalta con los ruidos</i>
2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko. <i>Ve bien: mantiene los objetos, cuentos, juguetes a cierta distancia, no frunce los ojos ni ladea la cabeza al mirar</i>	2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko. <i>Ve bien: mantiene los objetos, cuentos, juguetes a cierta distancia, no frunce los ojos ni ladea la cabeza al mirar</i>	2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko. <i>Ve bien: mantiene los objetos, cuentos, juguetes a cierta distancia, no frunce los ojos ni ladea la cabeza al mirar</i>	2	Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko. <i>Ve bien: mantiene los objetos, cuentos, juguetes a cierta distancia, no frunce los ojos ni ladea la cabeza al mirar</i>
3	Eskaileretan gora eta behera ibiltzen da barandari edo hormari utsita. <i>Sube y baja escaleras apoyándose en la barandilla o pared.</i>	3	Laguntzarekin eskaileretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da. <i>Sube y baja escaleras con apoyo alternando los pies.</i>	3	Eskaileretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da. <i>Sube y baja escaleras alternando los pies.</i>	3	Hanka motzean ibiltzen da. <i>Salta a la pata coja.</i>
4	Hanka bakarrean mantentzen da pixkatxo batean. <i>Se pone a la pata coja un poquito de tiempo.</i>	4	Hanka baten gainean egoten da. <i>Se pone a la pata coja.</i>	4	Atzera nahiz aurrera ibiltzen da. <i>Anda hacia atrás y hacia adelante.</i>	4	Triangeluak eta bestelako irudi geometrikoak kopiatzen ditu. <i>Copia triángulos y otras figuras geométricas.</i>
5	Korrika egiten hasi da. <i>Empieza a correr.</i>	5	Erori gabe korrika egiten du. <i>Corre sin caerse</i>	5	Korrika doanean noranzkoa alda dezake. <i>Es capaz de cambiar de dirección mientras corre</i>		
6	Eskailera-maila batetik salto egiten du. <i>Salta desde un escalón.</i>	6	Trizikloan ibiltzen da (pedalduna edo gabea). <i>Va en triciclo (con o sin pedales)</i>	6	Salto egiten du hanka biek batera. <i>Salta con los dos pies</i>		
7	Aulki eta sofatarak igotzen da laguntzarik gabe. <i>Se sube a sillas o sofás sin ayuda.</i>	7	Pilota ostikoz jotzen, jaurtzen eta hartzen du. <i>Da patadas, lanza y coge una pelota.</i>	7	Heldu bati pilota burutik gora jaurtzen dio. <i>Tira la pelota al adulto por encima de la cabeza.</i>		
8	Pilota ostikoz jotzen du. <i>Da patadas a una pelota.</i>	8	Marra zuzenak edo zirkuluak kopiatzen ditu. <i>Copia líneas rectas o círculos.</i>	8	Artaziak erabiltzen ditu. <i>Utiliza las tijeras.</i>		
9	Zirimarrak egiten ditu. <i>Garabatea.</i>			9	Zirkuluak eta karratuak kopiatzen ditu. <i>Copia círculos y cuadrados.</i>		